



Harrera beroa izan zuen 'Itsasoaren emazteak' ikuskizunak.- Hika teatroa eta Oinkari dantza taldearen ikuskizunaz gozatu zuten herritar askok ostiralean. Itsasoko jendearen bizimodura hurbildu ahal izan ziren ikusleak, dantza, musika eta antzerkia uztartzen dituen lanaren bitartez. Manuel Lekuona ia bete egin zen Oinkari eta Hika teatroaren azken ikuskizunaz gozatzeko. "Itsasoaren emazteak" lanak kostako emakumeen istorioak ekarri zituen kultur-etxera. Kontakizun honetan dantza da protagonista eszenografia ikusgarri eta erakargarriarekin taularatuz. Hain zuzen, koreografia ikusgarri hauek osatzeko lanetan Maider Oiarzabal herritarrek parte hartu zuten. Euskal dantza tradizionalak oinarri hartuta, dantza garaikidera moldaketa egiten lagundu zion Oinkari Villabonako taldeari Oiarzabalek. Musikari, dantzari eta aktoreen lana txalo zaparrada luzearekin saritu zuten ikusleak.

2 EMAKUMEEN EGUNA Martxoaren zortzirako ekintzak abian dira

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, ekintza sorta zabala prestatu du aurten ere Emakumeen Zentroak Udalarekin elkarlanean. Tailerra, dantza, antzerkia, ipuin-kontalaria, afaria, elkarretaratzea eta kalejirarekin osatutako agenda aurkeztu zuten ostiralean.

3 POLITIKA EH Bilduko alkateen agerraldia 'Urquijoren erasoen aurka'

Gipuzkoako Bilduko 40 alkate eta zinegotzik agerraldia egin zuten Manuel Lekuonan eurek kudeatutako udalek Espainiako Gobernu Delegazioa zuzentzen duen Carlos Urquijoren aldetik jasaten dituzten erasoak salatzen. Erantzun instituzional, politiko eta sozialerako deia egin zuten.

4 ANDALUZIA EGUNA Dantza eta musika nagusi Semblante Andaluz elkartean

Otsailaren 28a Andaluzia eguna dela eta, ospakizunak egin ditu Semblante Andaluz elkarteak asteburu osoan zehar. Ostiralean eman zioten hasiera festari eta atzo iluntzean amaitu zuten dantza erakustaldi eta kontzertu ezberdinez osatutako egitarau oparoa.



SUKALDEKO TRESNAREN ASTEA

%20 DESKONTUA

Bideo Lagunak = TIEN 21 =

Etxekotresna elektrikoak

12 HILABETAN INTERESIK GABE

TIN: 0% TAE: 0%

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria

Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

EMAKUMEAREN EGUNA

Martxoaren zortzirako egitaraua

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, ekintza sorta zabala prestatu du Emakumeen Zentroak

Adin ezberdineko herritarrei begira prestatu dute Emakumeen Zentroak eta Udalak aurtengo egitaraua. Tailerra, dantza, antzerkia, ipuin-kontalaria, afaria, elkarretaratzea eta kalejirarekin osatutako agenda aurkeztu zuten Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako saileko arduradunak eta Maite Iglesias eta Joana Azpitarte Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko teknikariek.

TXINTXARRI

Egitarauari atzo eman zitzaion hasiera, Lilatoiarekin batera. Izan ere, Euskotrenen Geltokian talde-argazkia atera eta etorkizunean herriko emakumeen artean landu ditzaketen sareez eta ekimenez aritu ziren herriko dozenaka emakume korrikalari.

Asteazkenean, arratsaldeko 18:30ean, 'Emakumeen Ahalduntzea, norbanakotik kolektibora' hitzaldia emango du Arabako Solidaridad Internacional Elkarteak, Emakumeen Zentroan.

Ostegunean, 11:30ean Landaberriko ikasleekin 'Mar-

txoaren 8ko egunaren hausnarketa eztabaidak' burutuko dituzte jolas-garaian eta gauza bera egingo dute ostiralean Lasarte-Usurbil Institutuan, "martxoaren 8aren historia eta esanahia" gazteei zabaltzeko.

Ostiralean bertan, baina iluntzean, helduentzako antzerki emanaldia eskainiko du Lan eta Lan taldeak. Moiléren 'Tartufo' lana interpretatuko dute Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrerak 3 euroko prezioa izango du. Ostean, Semblante Andaluzek Udalarekin elkarlanean antolatutako herri-afaria egingo dute elkarteak Atsoabarren duen egoitzan.



Gorka Lizarraga zinegotzia Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako saileko arduraduna eta Joana Azpitarte teknikaria.

Larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxean, 'Do,Re,Mi golkoa bete ipuin' 4 urtetik gorako haurrentzako ipuin-kontalaria izango da Amaia Arriaranen eskutik.

Aste osoan zehar ekintzak egin ostean, martxoaren 8an bertan, igandean, lau hitzordu jarri dituzte.

11:30ean Semblante Andaluzeko 'Zambra' dantza taldeak emanaldia eskainiko du.

12:00etan Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko elkarretaratzea egingo da Okendon.

12:15ean, herritarren parte-hartzearekin mural erraldoia osatuko da plazan

bertan. Gazte Klubeko gazte-txoe egingo dute murrakimurala, eta herritarrei ere gonbidapena luzatzen zaie edozein esparrutako emakume langileen argazkiekin etortzera.

12:30ean Okendotik abiatuko den kalejirak emango dio amaiera egunari.

PSE-EEk Jubilatuen etxea utzita dagoela salatu du

Jesus Zaballos, PSE-EEko bozeramaileak, Biyak Bat erretiratuen etxearen egoera "tamalgarría" salatu du ohar bidez.

PSE-EEk Udalaren utzikeria deitoratzen du, gainera Udalak egoera honetara iritsi baino lehen, irtenbiderik ez emateaz atsekabetzen da.

"Ez dugu ulertzen hezetanaren arazoa egoera larri honetara iristen utzi izana. Ez da margoa zartatu dela soilik, pareta bat zulatzen ari dela eta, bertan berogailu elektrikoa dagoela kontuan izanik larritasuna handiagoa da" sozialisten aburuz.

Zaballosek "Udalak erreakzionatu eta kalteak lehenbailehen konpontzeko

iniziatiba izatea eta lanean hasteko aitzakiarik ez jartzea" espero du.

"Erretiratuen etxearen egoera Bilduk egiten duen Udal kudeaketa txarraren adibide bat besterik ez da. Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak baliatzen ditu behar ez diren ikerketak egin eta lehiaketak lantzeko pertsonala kontratatzeko, udal eraikuntzek edo herriko bideetan dauden kalte larriak konpontzeko kontratazioak egin beharrean".

Azkenik, "Bilduk korrika eta presaka Antonio Mercero Museoko gunea txukuntzeko 19.000 euro gastatuko ditu, hauteskundeak baino lehen eta Udaleko gainontzeko



Hezetanunak Biyak Baten.

alderdien iritziaren aurka, gunea herriko elkarte bati zuzenean lagatzeko. Hori egin beharrean, Erretiratuen Etxeko hezetanun arazoa konpontzeko bideratzea zuen diru hori" dio Zaballosek.

Osakidetza zigortu dute amiantoak hildako herriko langile baten kasuagatik

Donostiako 5. Gizarte Epaitegiak Osakidetza erreturtoa bertan behera utzi du. Beraz, Lan Ikuskaritzak eta INSSk jarritako salaketa medio, Dioni V. Z. lasarteoriatarraren gaixaldiak langileari eragindako gastu guztiaren %30 errekaratzea zigortu dute Osakidetza, segurtasun baldintzak bete ez zituelako.

Dioni V. Z. Donostiako Ospitaleko elektrizista izan zen 1974 eta 2011. urteen artean. Urtebete beranduago, 2012an hil zen biriketako minbiziarekin.

Langilearen heriotza amiantoak eta X izpen erabileraren desegokiak eragin zuela ebatzi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak. Horregatik, 93.408,58 euro ordaindu


behar izan zizkien aurrez Osakidetza lasarteoriatarraren senideei.

AVIAMIE elkarteak, haserre ASVIAMIEk, Amiantoaren biktimen elkarteak, Osakidetza zuzendaritzaren "zini-moa" salatu du: "Kasu hauetan, Osakidetza ez zuten higie-neurketarik egin, ez zuen arriskuaren informaziorik eman, langileei ez zieten babes-jantzi egokirik eman eta mediku-azterketek ez zuten indarrean zegoen legedia betetzen".

Gainera, orain "barkamena eskatzen urrun", Osakidetza halako errekursoekin "erantzukizunak eta neurri prebentiboak" salbuesti egin nahi ditutela adierazi du ASVIAMIEk.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna,
Nerea Eizaguirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

POLITIKA

EH Bilduko alkateak "Urquijoren erasoen aurka"

Agerraldia herrian egin zuten 40 alkate inguruk

Gipuzkoako EHBilduko 40 alkate eta zinegotzik agerraldia egin zuten Manuel Lekuonan azken hilabete luzeetan eurek kudeatutako udalek Espainiako Gobernu Delegazioa zuzentzen duen Carlos Urquijoren eskutik pairatutako erasoak salatzen, erantzun instituzionala, politikoa eta soziala emateko deia egin zuten.



Alkateek Manuel Lekuonan egin zuten agerraldia.

publikoak garen heinean, eta interes edo kolore politikoen gainera, egoera honi aurre egiteko deia egiten dugu. Etengabeko esku-hartze honi aurre egiteko urrats irmoak eman behar ditugu euskal instituzioetatik".

Urquijoren eta estatuaren esku-hartzeak erantzun bateratua eta komuna eskatzen dutela iritzita, "instituzioetatik eman behar da erantzuna, eremu politikotik eta gizartetik, euskal instituzioetan hartutako erabaki demokratikoekiko errespetua exijitzeko".

Alkateen batzardea

Ostiralean Manuel Lekuonan alkateek egindako bileran era-

baki zuten; batetik, Gasteizko Legebiltzarreko talde politikoekin harremanak hasiko dituen alkateen batzardea izendatzea.

Batzorde honen helburua izango da erantzun bateratu bat gorpuzteko mekanismo politikoak eta juridikoak proposatzea.

Bestetik, "Euskal Herrian, hartzen diren erabaki demokratikoen usurpaziori erantzuna emateko" deia egin zioten euskal gizarteari.

Zentzu horretan, Kontseiluak deituta "Oztopoen gainera, euskaraz biziko gara" larunbatean egin zen manifestazioan parte hartzerako deitu zituzten herritarrek.

INTERNET

Martxoko ikastaro eskaintza KZgunean

Oriamendi plazan kokatuta dagoen KZguneak ikastaro eskaintza berri du martxorako. 30 orduko oinarrizko internet ikastaroa, martxoaren 9an hasi eta 31 bitartean izango da euskaraz. NagusiWeb ikastaroa martxoaren 23tik 29ra eman go da gazteleraz. Ikanos egitasmoaren hitzaldia berriz, martxoaren 18an eskainiko da gazteleraz 18:00etan. Bestalde, Software libreko Open Office writer programaren inguruan, bi orduko ikastaro laburra egin ahal izango da 16:00etan hasita euskaraz martxoaren 31an.

Azkenik, IT txartela azterketak 18an eta 30ean egingo dira 11:00etatik 13:00etara.

ERRIGORA

Oliba olio birjina estra eskuratzeko aukera, martxoaren 4ra arte

Bertako produktuak eguneroko kontsumo ohituretan txertatzeko eta nekazari eta ekoizleen ogibideei bultzada emateko helburuz, eskaintza berria prestatu du Errigorak: oliba olio birjina estra eskuratu ahalko dute herritarrek martxoaren 4ra bitartean. Bi modu dituzte horretarako: Ttakunen bulegotik pasa eta datuak eman edo bestela *errigora.eus* atariko formulario bat bete. Bost litrokoak dira olio bidoiak: 20 euro balio dute konbentzionalak eta 28 ekologikoak. Bidoien bat eskatzen duten herritarrek Ttakunek Iñigo de Loyola kalean duen lokalera joan beharko dute bila, martxoaren 11n 18:00etatik 19:00ak arte edo martxoaren 12an 11:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 19:00etara.

UDALA

'eLiburutegia' erabiltzen ikasteko tailer bat antolatu du Udalak

2014an jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak 'eLiburutegia' zerbitzua; euskarazko zein gaztelaniazko 3000 liburu baino gehiago aurki ditzakete herritarrek bertan. Zerbitzuaren erabilerak, erraza izanik ere, arazoak eta zalantzak sortzen ditu.

Galdera horiek argitze aldera doako tailer bat antolatu du Udalak, asteazkenean. 18:30ean hasiko da, liburutegian. Aurrez, liburutegian bertan eman beharko dute izena interesa dutenek, plazak mugatuak dira eta.

Tailerraren egunean, herritarrek bi ezinbesteko gauza beharko dituzte: Udalaren wi-fi konexiora sartzeko pasahitza batetik, eta tablet, e-book edo ordenagailu eramangarri bat bestetik.

Iñaki Balerdi eta Argi Iturralde gogoan

12 urte igaro dira Juankar Balerdi presoaren ama eta anaia auto istripuz zendu zirela. Ostiral iluntzean gogoratu zituzten Okendo plazan lagun, senide eta dozenaka herritarrek. Elkarretaratzean, Presoen Lagunak taldeko kideek hartu zuten hitza: "Argi eta Iñaki inposatutako bidaia bat egitera joan ziren, espainiar agintariek euskal presoaren senide eta lagunaren aurka ezarritako neurri errepresibo bat jasatera, dispersio eta sakabanaketa politika alegia".

Ezbeharrak gertatzean, "guztiz normala" den gauza bat egitera zihoazela adieraziz, "preso dagoen semea, anaia, bisitatzea joan ziren, EHn milaka pertsonak egiten jarraitzen duten bezalaxe".

Era berean, gertaerak gertukoak "latz, oso latz" kolpatu zituela gogoratu zuten: "Gaur ez daukagu oroimean besterik, Juankarren eta



Elkarretaratzea amaitzeko, Argi eta Iñaki oroitzuten dituen bertso bat abestu zuten.

haren senideen mina baizik". 2003ko otsailean alderdi politiko "gehienek" hartu zuten jarrera ere kritikatu zuten elkarretaratzean: "Gertatutakoa baloratzean, beste auto istripu bat zela esan zuten, baina beraiek badakite, guk bezalaxe, ez zela 'beste bat' izan, sakabanaketa politikak baldintza guztiak jartzen

dituela horrelako gertaerak emateko, propio eraikitako estrategia baten ondorio direlako".

Argi eta Iñaki euren "ondare" direla nabarmendu nahi izan zuten ekitaldian: "Ez ditugu ahazten, ez ditugu ahaztuko. Gora Argi! Gora Iñaki!", lau-haizetara oihukatuz amaitu zuten elkarretaratzea.

Sahararen alde elkartuta



Ostiral iluntzean elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek Okendon.

Maroko Saharatik at!! Independentzia' lelopean 40 bat lagun bildu ziren ostiralean Okendon. Tartean ziren PSE-EE, EAJ, EH Bildu edota Podemoseko kideak, hainbat herritarrekin batera.

Ez da Lasarte-Oriak Sahararako herriari babesa emateko azken ekintza izango. Sahararen Lagunak taldeak hitzaldi

sorta bat antolatu du Villa Mirentxun martxoaren 11rako. Udalak diruz lagundu du 'Tolosaldea Sahararekin' elkartasun proiektua eta programako kideek hitza hartuko dute hilaren 11n.

Azkenik 'Oporrak Bakean' egitasmorako bi familia behar dituztela gogorarazi eta gonbitea luzatu nahi izan zuten.



Semblante Rociero koruak emanaldia eskaini zuen dantza erakustaldien artean.



Gitanillos del Alba taldeko gaztetxoak larunbateko emanaldian.



Udal ordezkariekin Aldundiko Itziar Pildain egon zen ostiralean.



Bazkari ederra egin zuten atzo elkarteak.

Hiru egunez ospatu dute Semblantekoek Andaluzia eguna

Dantza eta musika emanaldiak izan dira nagusi elkarteak Atsobakar auzoan duen egoitzan

Semblante Andaluz elkarteak Andaluzia eguna ospatu zuen asteburuan hamaika ekintzekin. Musika, dantza ikuskizunak eta jaia nagusi izan arren, ostiraleko ekitaldia baliatu zuten ohi bezala, elkartearen zuzendaritza berria izendatzeko. Urte baterako Jose Mari Mellado bazkideak hartu zuen Semblanteko lehendakaritza orain arte lan horietan aritu den Jose Vicente Perezen eskutik.

TXINTXARRI

Ostiralean ekin zioten Semblante Andaluz elkarteko kideek Andaluzia egunaren inguruan, otsailak 28, egin ohi dituzten ospakizunei. Agintarien oho-rezko brindisa egin zuten lehendakari berria izendatu ostean. Jose Mari Melladok hartu zuen kargua.

Jaiaren hasiera honetan udaleko ordezkari politikoak izan ziren eta hauekin batera Foru Aldundiko Migrazio eta Aniztasuneko zuzendaria den Itziar Pildain. Zambra taldeko kide batzuek dantza

bat eskaini zuten ekitaldia girotzeko.

Dantza eta Musika

Larunbatean berriz, dantza eta musika emanaldien txanda izan zen. Atsobakar auzoko egoitzako oholtzan Gitanillos del Alba, Azabache eta Zambra taldeen dantza erakustaldi alai eta koloretsuak izan ziren.

Jarraian, musikaren txanda izan zen. Estilo ezberdinak jorrotzen zituzten taldeak izan ziren. Merche Montese kantaldi ederra eskaini zuen berak esan bezala "gaixo egon arren". Bukatzean Andoainera abiatu zen hango

andaluziar elkartearen ere abes-tera.

Honen ondoren, Semblante Rociero koruak hartu zuen lekukoa. Petri Fuentes flamenko kantaria eta Paco Carrionen emanaldiez gozatu ahal izan zuten bertaratutako bazkideek larunbat arratsalde euritsuari amaiera emateko.

Igandean, Arantzazuko Amaren parrokiaren meza rozieroa egin zuten Semblantekoek eta ospakizun erlijiosoan dantza eta kantak uztartu zituzten. Gitanillos del Alba taldeko gaztetxoak izan ziren dantzan. Doinuak berriz, Semblante Rocierok jarri zituen.

Bazkari herrikoian Pablo Barrio Alkatea, PSE-EEko Jesus Zaballos eta Plataformako Juanjo Castro izan ziren besteak beste. Jaiari amaiera emateko azken kanta eta dantzak izan ziren.

MAiTE

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

JEXUSMARI BORROKAN ARI DA “B” DOKTOREAREN AURKA

“B” kontabilitatea, BEZik gabeko salmentakanpainak eta “black” txartelak egunerokogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera
ezkutuaren
bidea

◀ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)



“A” gizartea lortzeko

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara

www.ekonomiagardena.eus

#ekonomiagardena



Gipuzkoa

BERRIA

ATLETISMOA.-

Lilatoia, lasterketa bat baino askoz gehiago

Herriko 112 emakumek bukatu zuten Donostiako 26. Lilatoia

Ia 4.000 korrikalari izan ziren atzo Donostian egiten den 5km-ko lasterketan. Horien artean, 112 lasarteoriatarrek ziren. Herrikoen artean azkarrena Nieves Civicos izan zen ibilbidea 21:13ko denboran osatuta. Hala ere, Lilatoian marka ez da garrantzitsuena emakumeen lasterketa honen helburua kirol esparrutik haratago doa 1989. urtean lehenengo edizioa egin zenetik.

MAIDER AZURMENDI

Atzo Lilatoiko 26. edizioan ia 4.000 emakume izan ginen korrika Donostiako erdigunetik presatutako 5km-ko ibilbidean.

Kirola eta batez, ere, lasterketen mundua hain zabaldua dagoen honetan, badirudi atzoko lasterketa ez dela, kirolarien ikuspegitik, "gogorra" edo kontutan hartu beharrekoa. Baina Lilatoia ez da lasterketa arrunt bat.

Lasterketa honetan irabaztea da gutxienekoa, esango nuke, ia parte hartzaile guztiontzat. Gehienez jota, lagun eta familia arteko pikeak dira bakoitzak izan dezakeen kirol erronka bakarra.

Izan ere, bildu gintuen helburua lasterketa osatzea baino askoz handiagoa da.

Kirol proba hau tresna bat

bestetik ez da emakumeon eskubideak ozen aldarrikatu eta sexuen arteko berdintasunean oinarritutako gizarte erreal baten alde egin eta azaltzeko.

Eguna ondo hasteko, autobusean, gizon heldu bati entzun behar izan nion gaur egun halako aldarrikapenen beharrik ez dagoela, eta trafikoa Lilatoiatatik ixtea tontakeria zela.

Damutu nintzen baina ez nion ezer esan. Hain juxtu, larunbatean Lilatoriaren harira, lagun batek kontatzen zidan, bere enpresako zuzendaritzak erabaki zuela hemendik aurrerako kontratazioetan emakumeak kontutan ez hartzea, ez behintzat 25 eta 35 urte artekoak, haurdunaldi bajak ekiditeko helburuarekin. Benetan ez da ezer aldarrikatu behar?

Zorionez egia da 1989. urtetik, Lilatoia lehenengo



ediziotik, zerbait aldatu dela. Horren adierazle izan ginen atzoko ia 4.000 parte hartzaileak. Bide bazterretan jendetza bildu zen gu animatzera, "Aupa Ama" mezua zeramaten kartulina koloretsu pila ikusi genituen. Publikoaren artean ere emaztea edota alaba horrelako proba batean parte hartzen inoiz imaginatu ez zuten gizonak ere baziren, ikusle masan non kokatu guztiz jakin gabe.

Beste urte batez, izeba, ahizpa eta lehenengo aldiz parte hartzea izan duen 14 urteko lehengusinarekin egin nuen korrika.

Fisikoki sentsazioa ez zen guztiz ona izan baina berdindio, lasterketa festa giroan bizitzeko aukera izan genuen



Herriko korrikalariak argazkia egin zuten Euskotrenen.

beste behin. Txaloka, saltoka eta bidean genituen lagun eta senideak sutuki agurtuz.

Azken metroak ahizpa eta biok eskutik helduta egin genituen. Erraz iritsiko zen bera minutu batzuk lehenago, indarrez soberan, baina beti bezala, nirekin geratu zen azken

metrotan lagundu eta elkarrekin helmugaratzeko.

Atzoko arrakastak erakusten du adin guztietako emakume marea hori geldiezina dela eta gure eskubi-deen alde borrokan jarraituko dugula.

Aupa neskek!

BOLA-JOKOA.-

Iosu eta Josean Lasa anaiak Gipuzkoako bikotekako txapeldun Ereñozun

Ostadar SKTko bola-jokalariak, Iosu eta Josean Lasa anaiak, bikotekako Gipuzkoako txapela jantzi zuten joan den igandean Ereñozuko bolatokian.

Bikote lasarteoriatarra lidergoan aurkeztu zen Ereñozuko azken proba. Lan ona osatu zuten, erregularra, eta bakoitzak eskuratutako laugarren eta bosgarren postuak txapeldun egin zituen.

Saillapeneko buru

Ereñozuko azken tiraldiko saillapena honakoa izan zen: 1.Xabier Lizeaga, 49 birla botata 2. Imanol Iruretagoiena (49) 3. Patxi Arrondo (49) 4. Josean Lasa (48) eta 5. Iosu Lasa (46). Dena den, Lasa anaiak ez ziren Ereñozuko bolatokian parte-hartu zuten lasarteoriatar bakarrak izan, Ostadar SKTko Joxean Mon-



Iosu eta Josean Lasa, Gipuzkoako txapela buruan dutela.

tes eta Inaxio Otaegi seigarren eta zazpigarren saillatu baitziren hurrenez hurren.

Azken jardunaldi honetako emaitzen ostean, Gipuzkoako Txapelketako saillapena honela geratu da: 1. Iosu Lasa eta Josean Lasa, 371 birlekin 2. Xabier Iruretagoiena eta Imanol Iruretagoie-

na, 368kin 3. Martin Lizeaga eta Joxe Angel Belaunzaran, 356kin. Hamairugarren egin zuten Inaxio Otaegi eta Joxean Montes lasarteoriatarrek, 353 birla botata.

Datorren urtean Gipuzkoako txapelari eusten saiatuko dira Ostadar SKTko jokalariek.

FUTBOLA.-

Texas Lasartearrak 3-4 galdu du Andoingo Euskalduna liderraren aurka

Liderra jaso zuen larunbat arratsaldean Texas Lasartearrak Michelinen. Kopan, I. Erregionaleko III. multzoan daude herritarrek Andoingo Euskalduna bera, Segura Goierri, Ikasberri, Ontzerri, Urola eta Danenaren ligaxkan. Helburua, aurreko urteetan bezala, Kopako txapelketa honetan ahalik eta txukunena egitea da.

Oso partida orekatua jokatu zuten bi taldeek larunbatean. Bigarren zatian 1-3ko emaitzari buelta eman eta berdintzea lortu zuten etxeok. Partidaren azken minutuan ordea, andoindarrek garaipeneko gola sartu zuten. Vicente Gil Texaseko entrenatzailearen hitzetan, "jokoz kanpo argia" izan zen eta gola ezeztatua behar zuten arbitroak. Taldea azken minutuan gertatutakoarekin oso haserre zegoela aitotzen zuen Gilek. Hala ere, taldearen jokoarekin pozik azaldu da entrenatzailea. Maila ona erakusten ari da taldea azken neurketetan.

Partidu hau jokatu aurretik, saillapenean bosgarren ageri zen Texas Lasartearra sei punturekin.



Agenda

Ostirala, Manuel Lekuonan 21:00etan



Lan eta Lan taldearen azkena

"Tartufo" antzezlan eskainiko du herriko Lan eta Lan antzerki taldeak. Emakumearen Nazioarteko eguna dela eta prestatutako egitarauaren baitako ekintza izango da. Tartufo da lan honetan protagonista eta bere itxura ona baliatuko du Orgon etxe aberatsean sartu eta jauntxoaren konfidantzazko gizona bilatzeko. Familia guztia gezur eta hamaika arazotan murgilduko du. Gazteleraz. Sarrera 3 euro.

elkarlanean, herri afaria antolatu du. Ondoren musika eta dantza izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata, 11:00etan

"Do, Re, Mi, golkoa bete ipuin" izenburupean 4 urtetik gorakoentzat ipuin kontalaria. Doan.

SEMBLANTE ANDALUZ

Igandea, 11:30ean

Semblante Andaluzen Zambra taldearen emanaldia.

OKENDO

Igandea, 12:00etan

Emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko elkarretaratzea. Herritarrekin argazki-marrakiz mural bat osatuko da eta amaitzeko trikitilarekin kalejira.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Alexander y el día terrible, horrible, espantoso, horroroso" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Rastros de Sándalo" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

"Molli Malone" haur antzerkia Txalo produkzioak-en eskutik. Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

Jaia

ANDATZA PLAZA

Larunbata, 11:00etan

Oihalez jantziko dute Lasarte-Oria Gure Esku Dago ekimeneko partaideak. Kalejira antolatu dute Andatza plazatik Okendora. Bertan tutore eta saretuek jasoko dituzten oihalak zintzilikatuko dira. 45 tutore eta 900 herritar inguru ari dira ekimenean parte hartzen eta gehiago animatu nahi dituzte.

Asteazkena, 18:30ean

"Emakumeen ahalduntzea, norbanakotik kolektibora" tailerra Arabako Solidaridad Internacional elkartearen eskutik. Doan.

LANDABERRI BHI

Osteguna, 11:30ean

Landaberi eskolako jolas orduan ikasleekin "Martxoaren 8ko egunaren hausnarketa eta eztabaidak" burutuko dira.

INSTITUTOA

Ostirala, 11:30ean

Institutoan eskolako jolas orduan ikasleekin "Martxoaren 8ko egunaren hausnarketa eta eztabaidak" burutuko dira.

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala, 21:30ean

Semblante Andaluzek Udalarekin

Andoain

Bertsolaritza

IRUNBERRI ELKATEAN

Ostirala, 21:00etan

Korrika kulturalaren baitan "Rebantxa bertso afaria" egingo da eta honetan Lasarte-Oria eta Andoaingo bertsolarien arteko lehia izango da. Andoaindik Ion Beloki, Ion Eskudero eta Aritz Eskudero arituko dira eta Lasarte-Oriatik Ane Labaka, Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz. Aurreko lehia lasartearekin irabazi zuten Jalgin. Txartelak salgai daude dagoeneko Irunberri elkartearen, Ernaitza liburudendan eta AEKn (943 59 17 04). Prezioa 18 euroko da eta txartela erosteko azken eguna martxoaren 3a izango da, antolatzaileek azkar ibiltzeko eskatu dute.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata, 17:00etan

Martxoak 8

EMAKUME ZENTROA

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daude jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrak euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Literatur Txokoa bertso-afaria

Martxoaren 14an bertso afaria antolatu du Irakurle txokoa Xirimiri elkartearen 21:00etan. Honetan parte hartuko dute Igor Elortza, Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Harkitz Canok. Txartelak 20 eurotan eros daitezke Gure Etxea, Jalgi, Ilargi eta Trumoi tabernetan.

Nikaraguako kontsulatu

mugikorra Donostian

Gurean bizi diren Nikaraguako herritarrek aukera izango dute euren paperak eta tramiteak Donostian bertan egiteko Madrilen kokatuta dagoen kontsulatura joan gabe. Kontsulatu mugikorra deritzona, Aldundia, Esperanza Latina eta El Güegüense elkarten ekimenez ekarri da. Martxoaren 12 eta 13an Donostiako Julio Caro Baroja plazako 2. zenbakian, 3. solairuan izango da. Aurrez hitzordua hartu behar da 665 29 38 67 zenbakira edota consulnic.madrid@gmail.com helbidean.

Bi txakur galdu dira

Pasa den igandean 2 setter-ingeles galdu ziren Lasarte-Orian, Zabaleta-Ilarratzueta artean. Garratza base-riaren inguruan ere ikusi dituztela jakin dugu. Bat txuri-gorria eta bestea txuri-beltza. Ikusi dituzuela uste baduzue, deitu mesedez 620 91 21 75 telefonora (Luis).

Sarean

Haur literaturaz gozatzeko app-a



Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, euskarri berrietara ekarri du Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren Maria Goikoak batbirulau!

Liburuaren berezko izaera jostariari utsiz, jolaserako proposamen berriak eta errealitate areagotuan birsortutako irudiak biltzen ditu Maria Goikoak batbirulau! app-ak: puzzleak, memoria-jokoak, hitz-jokoak, 7 desberdintasunak bilatzeko jokoak, abestiak, 2.5D efektuko irudiak, eta bestelako hainbat joko. Androidetarako eta iphone/ipad-etarako bertsoan eskura daitezke. Haurrek euren kasa zein helduen laguntzarekin irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere haurrek eta helduek bakarka nahiz elkarrekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Herritarren ikusmena zaintzera dator Multiópticas

Kale Nagusia 15 zenbakian zabaldu du denda berria Multiópticas optika ezagunak

Multiópticas betaurreko dendak bere atek ireki ditu Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Bertan erabateko ikusmen azterketa egiteaz gain, betaurreko eta lenteetan dauden berrikuntzak aurki ditzakete bezeroek. Mó markaz gain, diseinatzaile eta betaurreko marka ezagunekin osatuta dago euren bilduma. Gainera, hau sei hilero aldatzen dute, beti momentuan modan dauden betaurrekoak bezeroari eskaini ahal izateko. Teknologia berriekin hornitutako tresnak jarri dituzte denda berrian eta honen zerbitzu profesionala ezagutzera gonbidatzen dituzte herritarrek.

TXINTXARRI

Multiópticas betaurreko denda ezagunak, denda berria zabaldu du Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Ostegunean dendaren irekiera herritarrekin ospatu nahi izan zuten eta jende asko hurbildu zen bertara. Jai giroa aurkitu zuten herritarrek baita eguzki eta betaurreko graduatuen eskaintza zabalera ere.

Zentzu zabalean, kalitatea da denda honen oinarria bere arduradunek aipatu moduan.

Batetik, begi azterketak egiteko puntako teknologia erabiltzen duten makinak eta tresneria dituzte eta bestetik, lenteetan ere merkatuan dauden berri eta onenak eskaintzen dituzte.

Azterketak doan

Begien osasuna zaintzea da Multiópticas-en helburua eta hau zein den ezagutzeko, azterketa sakonak eskaintzen ditu optikak.

Ordu erdi inguruko iraupena izan ohi duten doako azterketak dira bezeroei egi-

ten dizkietenak. Hauetan begiaren osasunari erreparatzen zaio modu zabalean. Katarak, begi fondoak, tentsio okularrak... begiratzen da besteak beste. Azterketa hauek egiteko aurrez txanda hartu beharko da dendatik bertatik pasata, edota telefonoz 943 37 74 55 zenbakira deituta.

Gabinetean libre egotekotan, bezeroek momentuan izango dute aukera azterketa profesional hau egiteko, baina dendako arduradunaren esanetan hobe da hitzordua bermatzea bezeroak denbora galdu ez dezan.

Bezero bakoitzak zein behar dituen aztertu eta eza-gutu ostean, laguntza ere izango du bere betaurrekoak hautatzeko garaian.

Esperientziadun profesionalen aholkularitzaz gain, programa bat erabiltzen dute bezeroari argazkia egin eta betaurreko mota aukeratzeko laguntzen duena. Hau da, aurpegira hoberen datorkion betaurrekoa zein den jakiteko.

School Visual Test

Etxeko gaztetxoek ere badute



Herritar asko hurbildu zen ostegun arratsaldean egindako irekiera festara.

bere tartea denda honetan, 5 eta 12 urte arteko haurrentzako 'School Visual Test' ize-neko azterketa egiten dute.

Honen berezitasuna da umeei ikusmenean izan dezaketen edozein arazo antzeman edo garaiz tratatzen hasteko oso froga zehatzak egiten zaizkiela. Izan ere, ikerketa baten arabera haurren artean %25-%30ak ikusmen arazoak ditu.

Azterketa honetan hamar froga egiten dira; biomikroskopio delakoa egiten zaie

Denda berriaren irekiera eskaintza modura, Rayban markako betaurreko graduatuak 129 eurotan dituzte salgai

umeei begien osasuna zein den ikusteko; cover test-a, begien desbiazioa gertatzen den jakiteko edota stereopsis-a ikusmen koordinatuaren testa delakoa.

6 hilero bilduma berria

Bestalde, moda jarraitzaileentzat Multiópticas da denda aproposena arduradunaren esanetan.

Beste denda batzuetan ez bezala, honetan dendaren 'mó' betaurreko marka aurkitzeaz gain, diseinatzaile eta marka ezagunen azken betaurreko bildumak aurkituko dituzte Lasarte-Oriako bezeroek; Rayban, Carolina Herrera, Tous, Oakley, Tommy Hilfiger, Arnette... Izan ere, denda honetan sei hilabetero aldatzen dira bildumak beti ere, azken modeloak edukitzeko.

Hala ere, salneurri ezberdinetako produktuak aurki daitezke bertan, 67 eurotik kalitatezko betaurrekoak eskuratu daitezke, azken generazioko lenteekin. Gainera, hiru hilabeteko bermea

dute bertan erositako betaurreko progresibo guztiek.

Promoziok

Multiópticas denda berrian eskaintza ezberdinak jarri dituzte martxan lehenengo egun hauetan. Orain, Rayban markako betaurreko graduatuak 129 eurotan jarri dituzte irekiera eskaintza berezian baitan.

Dendako hiru langileek gustura hartuko dituzte bezeroak beharrezko aholkuak eman eta erosketan laguntzeko. Hala ere, denda handi eta argitsuan, betaurrekoen erakusketa zabalera irekia dago bezeroak eroso sentitu eta lasai, euren kabuz nahi beste betaurreko probatu ditzaten, horrela nahiago badute.

Multiópticas denda berriak herrian beste inork eskaintzen ez duen puntako teknologia dakar begien osasuna zaindu eta bezeroen onurarako.

Hori dela eta, dendara gerturatu eta eskaintzen duten zerbitzu profesionalaz gozatzera gonbidatzen dituzte lasarteoriatarrek.



Ikusmenaren azterketak egiteko puntako teknologiako tresnak jarri dituzte.